

Luxenburgoko Auzitegiaren sententzia gertu

Joan den maiatzean, Luxenburgoko Europar Komunitateen Auzitegiko abokatu nagusiak EAeko ahalmen fiskalaren aldeko erabakia hartu zuela jakinarazi zen, hots, enpresen zergak jaisteko aukeraren aldeko erabakia. Litekeena da behin-betiko sententzia irailean jakitea.

DANIEL UDALAITZ

EUROPAKO AUZITEGIAN, ahozko bista pasa den otsailaren 28an egin zen, eta bertara joan ziren EAeko administrazioiko hainbat ordezkari, baita alderdi bakoitzeko ordezkariak ere, Ezker Abertzalekoak eta EBkoak izan ezik. Halaber, EAeko hiru lurralde historikoetako patronaletako ordezkariak ere bertaratu ziren, EAeko egungo araudi fiskalaren aldeko erabaki judicial honen onuradun nagusiak izango bailirateke.

Aipatutako erakundeko abokatu nagusiaren erabakien ondoren, instituzioak eta eragile sozial, politiko eta enpresarialak Luxenburgoko Auzitegiaren azken erabakia jakiteko zain daude. Europako Auzitegiko abokatu nagusiaren aldeko eta behin-betiko erabakiek ez dute zertan lotesle izan, baina funtsezkoak dira azken erabaki judiciala zer norabidetan joan daitekeen jakiteko. Ezin da ahaztu Luxenburgoko Auzitegiko sententziak eredu fiskal autonomikoaren inguruko zalantzak ezaba ditza keela edo, alderantziz, neurri handi batean honda dezakeela. Horregatik, interesgarria iruditzen zaigu prozesu honen giltzarriak azaltzea, aipatutako auzitegi europarrak azkenean hartuko duen erabakia ulertzeko.

Zer epaitzen da eta zergatik?

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak Luxenburgoko Auzitegira bideratu duen auzia honako hau da: euskal lurralde hauek indarrean duten sozietate-zerga –enpresek urteko euren etekinengatik ordaintzen dutena–, Espainiako estatuko gainera-



ko lurraldeetako baxuagoa izaki, bateragarria al da Europako legalitatearekin? Ala, alderantziz, enpresek aurrezten duten dirua estatuko laguntza moduan hartu behar da eta, beraz, ilegala da? EAeko fiskalitatea salatzen dutenen ustez, beren erkidegokoa baino baxuagoa den sozietate-zergak beren enpresen deslokalizazioa bultzatzen du, eta konpetentzia urratzen.

Hau ez da afera Luxenburgoko auzitegira iritsi den lehen aldia. Sozietate-zergaren inguruko dantza judicialak hiru urte iraun zuen, eta 2004ko abenduan iritsi zuen gailurra.

Lehenik, bi enpresa jakintzako laguntzak bertan behera utzi zituzten: Daewoo eta Ramondin. Ondoren,

Europako Batzordeak ilegaltzat jo zituen “opor fiskalak” –sortu berri diren enpresek sozietate-zerga ez ordaintzea–, kopuru horiek itzultzea eskatu zuen eta, azkenean, Foru Diputazioek onartu egin zuten. 1999an, Kontzertu Ekonomikoak jasotzen duen sistema fiskala Europar Batasuneko hitzarmenarekin bateragarria ez dela erabaki zuen EBk, zenbait zergapeko diskriminatzen dituela eta. Lakuako gobernuak ‘bake fiskala’ delakoa sinatu zuen 2000n eta, horrenbestez, enpresentzako pizgarri fiskalak kentzeko konpromisoa hartu zuen, eta Madrilek, beste alde batetik, bere baliabideak.

Uko eginda ere, arau fiskalak auzitegitara itzuli ziren, beste autonomia

Politika fiskal antisoziala

Luxenburgoko Auzitegian jokoan dagoena ez da subiranotasun ekonomiko eta fiskala, Kontzertu Ekonomikoa ez baita subiranotasun tresna, Espainiako zerga-sistemarekiko dependentsia tresna baizik. Egia da Kontzertuak nolabaiteko autonomia fiskala ematen diola EAeri, baina horrek ez du zerikusirik subiranotasun ekonomiko eta fiskalarekin. Lurralde hauetan kokatutako multinazional eta enpresarioen zerbitzura dagoen politika fiskala jasotzen duen autonomia fiskala da. Politika fiskal horren ondorioz, EAEko enpresek beren etekinengatik ordaindu beharreko zerga %35etik gaur eguneko %20ra murriztu da, enpresa motaren arabera. Orobat, politika fiskal horrek "opor fiskal" delakoak jasotzen ditu eta, horregatik,

EAEra etorri diren multinazional eta beste enpresa batzuek, diru-laguntzak jasotzeaz gain, ez dute zergarik ordaindu behar.

Politika horrek politika sozialari egin dio kalte, baliabide gutxiago bideratzen baitira horretara eta, horren ordez, enpresen eta multinazionalen patrikak betetzen baitira. Egia borobila da: zenbat eta fiskalitate baxuagoa, orduan eta gastu sozial txikiagoa. Hortaz, EBn, 1993tik 2005era, gastu soziala %28tik %27ra jaitsi da. EAEn, aldiz, %24tik %19ra. Horregatik osasunera, hezkuntzara, etxebizitzara eta abarretara bideratutako gastua murriztu behar izan dute. Ondorioz, EAE aurrera eramaten ari den politika fiskala, gure uste apalean, antisoziala da.

erkidego batzuek, bereziki EAerekin muga egiten dutenek, jarritako errekursoak medio, beti ere sozietate-zergaren aferatik. Zehazki, Errioxako eta Gaztela eta Leongo erkidegoek, CCOO eta UGTren laguntzaz, uste dute EAEko araudi fiskalen eraginez enpresek beren lurraldeetatik alde egin eta Bizkaia, Araba eta Gipuzkoan kokatzen direla.

Azoreetako sententzia, euskal tesian alde

Egungo araudi fiskala mantentzearen alde ari diren EAEko instituzioetako, alderdietako eta enpresetako ordezkariak Luxenburgoko Auzitegiak berak duela bi urte Azore Uharteetako fiskalitatearen gainean eman zuen sententzia baliatzen dute, beren burua defendatzeko eta itxaropena izateko. Sententzia horren arabera, erregioek ezarpen-tipo murriztuak, beren estatukoak baino baxuagoak,

ezarri ahal izateko, hiru baldintza bete beharko lituzkete: lehenengoa, estatuaren konstituzioarekin bat etortzea; bigarrena, estatuaren baimenaren beharrik ez izatea; eta, hiru-

Egungo araudi fiskala
mantentzearen aldekoek
Luxenburgoko Auzitegiak
duela bi urte Azore
Uharteetako fiskalitatearen
gainean eman zuen
sententzia baliatzen dute

garrena, zergen murrizketa estatuak konpentsatu beharrik ez izatea. EAEko instituzioek baldintza horiek betetzen dituztela uste dute. Aurkakoe, ordea, ukatu egiten dute, esta-

tuarekiko harreman finantzarioak argiak ez direla argudiatuz. Luxenburgoko Auzitegiko abokatu nagusiak ondorioztatu duenez, EAEko fiskalitateak 'Azoreak kasuaren' eskakizunak betetzen ditu.

Ondorioak

Luxenburgok EAEko diputazioen kontrako sententzia emango balu, arau fiskalak ezartzeko Kontzertu Ekonomikoa jasotzen duen ahalmen apurra bertan behera gera liteke. EAEko instituzioentzat autogobernuaren aurkako eraso litzateke. Hala balitz, Errioxako eta Gaztela eta Leongo erkidegoei egingo lieke mesede, horiek izan baitira arau fiskalen aurkako helegiteak aurkeztu dituztenak.

EAEko diputazioen aldeko sententziak zerga ezberdinak onartzeko aukera zabalduko luke behin-betiko, diputazioen aurkako helegiterik gabe. ■



Dive Tarpoon Urpekaritza



Kirol portua, A7 lokala • 48992 Getxo • Tel / Faxa: 94 4912577

e-posta: divetarpoon@euskalnet.net • web orria: www.divetarpoon.com


